Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu ditu** itxitako ekitaldiko fakturak.

6. Tolosako Udaleko herritarren arreta zerbitzua (UDATE) arautzen duen ordenantza behin betiko onartu izanaren berri ematea.

6. Dar cuenta de la aprobación definitiva de la ordenanza reguladora del Servicio de Atención a la Ciudadanía (UDATE).

Udalbatzarrak, 2018ko abenduaren 4an egindako Osoko Bilkuran, Tolosako udaleko herritarrentzako arreta zerbitzua (UDATE) arautzen duen ordenantzari hasierako onespena eman zion.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, informazio publikorako ikusgai jarri zen hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako Aldizari ofizialean argitaratua izan zen eta hurrengo egunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Iragarkia 2019ko urtarrilaren 11eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta Informazio publikorako epean, erreklamaziorik aurkeztu ez direnez, , Tolosako Udaleko herritarren arreta zerbitzua (UDATE) arautzen duen ordenantza behin betiko onartutzat ematen da.

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira .

7. 2019/457 Alkatetza-Dekretuaren berri ematea: alkateak Tokiko Gobernu Batzarrari eskumenak eskuordetzea.

7. Dar cuenta del Decreto de Alcaldía 457/2019: delegación de las competencias de la alcaldesa en la Junta de Gobierno Local.

Parte-hartzeak:

... Alkatea : *"Hau lotuta dago herritarrekin. Burutzen diren izapide guztien berrazterketa egin da legealdi honetan administrazioaren funtzionamendua jasotzeko eta prozedurak sinplifikatzeko helburuarekin. Azkartze horretan, alkateak Gobernu Batzarrari eskualdatzen dizkion eskumenarekin dekretu berri osatu dugu. Hor dago jarrita, kontratazio eta ondareen kudeaketari dagokionak, kudeaketa ekonomikoari dagozkionak, pertsonal kudeaketari dagozkionak eta Hirigintza alorrari dagozkionak.*



TOLOSAKO
UDALA

Baita aipatzen da desadostasun kasuak Gobernu batzordera eramango direla. Gai berari buruz egindako txosten teknikoak kontraesankorrak baldin badira eta proposamen politikoaren eta txosten teknikoaren artean desadostasunak dauden garaian Gobernu Bartzarrera emango genituzke. Bestela alkate dekretuz egingo dira, Modu guztietara jakinarazpena egingo dira jakiteko alkate dekretuz zer onartzen diren, orain arte egin den modu berdinean."

2019/457 Alkatetza dekretuaren berri eman da.

ALKATETZA DEKRETUA

Zk.a: 457/2019

OLATZ PEON ORMAZABAL, Tolosa udaleko Alkate-Udalburuak, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.3 eta 23.2.b) artikuluetan xedatzen duenaren arabera, ondoko hauek

IKUSIRIK

LEHENIK.- Alkatetza honek, 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretuan, organo honi dagozkion hainbat ahalmen Tokiko Gobernu Batzarraren esku jarri zituela. Dekretu hori 2015eko abuztuaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 148 zk.an, argitaratu zen.

BIGARREN.- Azken hilabete hauetan, Tolosako udalak hausnarketa-jardunbide bat garatu du, herritarrekin burutzen diren izapideak berraztertuz, administrazioaren funtzionamendua azkartzeko eta prozedurak sinplifikatzeko helburuekin. Halaber, prozesu honetan hainbat akats eta hobekuntza aukerak detektatu dira 2015eko abuztuaren 6an izenpeturiko Dekretuan jasotako delegazioetan.

HIRUGARREN.- Hori dena ikusirik, Dekretu berri honetan jasotzen dira, alde batetik, legeriak Tokiko Gobernu Batzarrari onartzen dizkion aholkularitza-zereginak, eta, bestetik, organo honengan formulatzen diren delegazio berriak.

KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.3 eta 23.2.b) artikuluetan xedaturikoa, non Alkateari onartzen bait zaion ahalmena dagozkion hainbat eskumen Tokiko Gobernu Batzarraren esku jar ditzala.



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, Alkatetza honek ondorengo hau

ERABAKI DU

LENEHIK.- Tolosako udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, legeriak onartzen dizkion Alkatearen aholkularitza-lanak burutuko ditu, Alkatetzak hala proposatzen dionean.

BIGARREN.- Halaber, Alkatetzak, legeriak ematen dizkion ondorengo eskumenak delegatuko ditu Tolosako udaleko Tokiko Gobernu Batzarrarengan :

1. Alkatetzaren eskumeneko Kontratazio eta Ondarearen kudeaketari buruzko gaiak:

- a) Alkatetzari dagozkion kontratazio eta emakidak: espediente onartzea, lizitazioari hasiera ematea -hala denean-, eta kontratuaren kitapena onartzea, ondorengo kasuetan:
 - Kontratuak: 60.000 €-tik gorako balio zenbatetsia izatea.
 - Gainontzeko espedienteak: lizitazio-tipoa, edo urteko kanona (kasu bakoitzean) 60.000 €-ko kopurua gainditzea.
- b) Obra-proiektuak onartzea, baldin eta haiek kontratatzeko ahalmena badu eta aurrekontuetan jasota badaude.
- c) Ondasun eta eskubideak eskuratzeko gaineko bestelako irabazizko negozio juridikoak (erosketa, errentamendua...), eta ondarea besterentzeko espedienteen hasiera onartzea, haien balioak 60.000,00 €-ko kopurua gainditzen badu.
- d) Lokalak doan lagatzea, edo jabari publikoko lokalen erabilera baimentzea, urtebete baino gehiagorako.

2. Kudeaketa ekonomikoari dagozkion gaiak:

- a) Udal aurrekontua egiteko ildoak onartzea.
- b) Urte anitzeko Aurrekontu Plangintza onartzea.

3. Pertsonalaren kudeaketari dagozkion gaiak:

- a) Urteko lan Eskaintza Publikoa onartzea, Udalbatza Plenoak onarturiko Lanpostuen Zerrenda eta Plantilaren arabera.
- b) Pertsonala hautatzeko zein lanpostuak hornitzeko Oinarriak onartzea.
- c) Finkoak eta aldirak ez diren ordainsariak ezartzea, goragoko mailako lanari dagokion ordainsaria izan ezik.
- d) Langileei zehapenak ezartzea, salbu langile lan-kontratudunak kaleratzea eta funtzionarioak zerbitzutik kentzea.

4. Hirigintzaren alorrean:



- a) Aurri espedienteak ebaztea, berehalako aurrikoak izan ezik.
- b) Hirigintza-kudeaketarako eta urbanizazio-proiektuetarako tresnak onartzea.
- c) Garapeneko Plangintza xehatuak hasieraz, eta behin-behineko izaeraz onartzea.

5. Desadostasunak:

Eskuordetu gabeko eta Alkatetzak baliatzeko erreserbatuta dauden gaiak, beti ere eskuordetu daitezkeenak, Gobernu Batzarrarengan delegatu ahal izango dira honako kasu hauetan:

- Gai berari buruz egindako txosten teknikoak kontraesankorrak izatea.
- Proposamen politikoen eta txosten teknikoen artean desadostasunak egotea.

BIGARREN.- Dekretu hau Tolosako udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari eta udaleko Departamentu arduradun guztiei helaraztea.

HIRUGARREN.- Dekretu honen berri ematea Udalbatzari, egingo duen aurreneko bilkuran, eta dagokion iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udaleko Gardentasunaren Atarian.

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira .

8. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2018ko abenduaren 31koak:
2018/2395-2018/2396).
2019ko otsailaren 1etik 28ra
(2019/173-2019/371).

8. Notificación de los siguientes decretos emitidos por la Alcaldía:
Del 31 de diciembre de 2018
(2018/2.395- 2018/2396).
Del 1 al 28 de febrero de 2019
(173/2019-371/2019).

Alkatetzak 2018ko abenduaren 31n (2018/2.2395-2018/2.396) eta 2019ko otsailaren 1etik 28ra bitartean egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

9. Mozioa, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa onartzeko eta hura garatzeko konpromisoa hartzeko.

9. Moción de compromiso para la aprobación y desarrollo del proyecto de la Casa de las Mujeres de Tolosaldea.

Parte-hartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): "*Erabat ados mozio honekin. Bai Tolosa eta bai Tolosaldearentzat hain garrantzitsua eta beharrezkoa den proiektu hau, Emakumearen Etxea, garatzeko, aurrera eramateko eta errealitate bihurtzeko gure*



konpromiso osoa adierazi nahi dugu. Mila esker"

... Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): "Ongi etorri guztioi, aurpegi asko ezagunak dira. Gaur zoriontzeko egun bat da, nolabait inflesio puntu bat ere suposatzen duelako bat Tolosaldeko edo Tolosan kokatutako Tolosaldera begira jarritako etxea hau errealitate izan dadin beste urratsa bat ere badelako. Txosten bat ere iritsi zaigu gure gai ordenan eta bertan oso argi ikusten da Emakumearen Etxearen gauzatze honetan, oraindik gauzatu ez dena egin baina, prozesu horretan parte hartzea ere azpimarratzeko ere zerbait dela nola egin diren gauzak eta asmoa ere hori da edo hori beharko luke, guztion artean, bai erakundearen aldetik dauka errolagatik edo, noski nola ez, talde feministen bai ideiekin eta egitasmoarekin bat egindako proiektua bat aurrera eramatea. Nik hemen esanda dago dena, ia guztion artean adostutako zerbait da, hori ere zoriontzekoa da. Bakarrik azpimarratuko nuke gauza bat, espazio propio horren aldarrikapena da, egongo da eta uste dut hori inportantea dela emakume ikuspegi batetik. Hemen agertzen dira zenbait bilera egin diren, gune ezberdinetan, koordinazioa. Uste dut gure artean askotan, kezka edo mesfidantza egon izian dira, uste dut piskanaka guztiok salbatzen joan gara, iruditzen zaidalako borondate ona egon da, eta bai apustu egingo nuke, bai nahiko nuke horrela jarraitzea. Eskerra atala ere iruditzen zait tokatzen dela ematea, nola ez, Elhuyar aholkularitza taldeari lan bikaina egin dutelako eta asko erraztu duela guztia. Orduan lehenik eta behin beraiek eskerrak ematea, nola ez, emakumeoi Tolosaldeko emakume guztiei. Hau dokumentu bat da, hau papera dena, paperak dena aguantatzen du, uste dut orain zorionak, eskerrak asko eta aurrea egiteko garaia ere badela, ea lehenbailehen errealitatea den eta hurrengo hitzordua bertan egiten dugun."

... Alkatea: Mozio hau gaur hemen Tolosan hartzea hein haundi batean, gune zabalean egondako eskaera bat. Nolabait ikusgarritasuna emateko Eskualdeko udalak babesa ematen diola Emakume Etxearen proiektuari. Beraz, inportantea da, gaur mozio hori hemen onartzea. Nolabaiteko proiektuaren zabaltzen nahi horretan baita ere, erabaki zen Tolosako Udaletxean eskualdeko beste gainontzeko udaletxeei, gainontzeko udaletxeekin batera bilera bat egitea, beste udaletxeei esplikatzeko egitasmoaren nondik norakoak. Hori egin genuen hemen otsailaren 18an, bilera horretan bildu ginen hogeita hiru pertsona, alkateak: Aduna Asteasu, Berastegi, Irura eta Tolosakoak izan ginen. Zinegotziak: Altzo, Anoeta Bidania, Ikaztegieta Tolosa, Zizurkil, Ibarra eta Tolosako berdintasun teknikariak joan ziren eta baita ere Elhuyar-eko bi teknikariak. Han eman ziren prozesuaren azalpenak, uste dut bilera hori inportantea izan zela baita ere teknikariak zuzenean zituzten zalantza guzti horiek argitzeko, gero mozioa baita ere modu lasaian onartu ahal izateko. Dagoeneko gaur dagoeneko baditugula Zizurkil, Oreja, Altzo, Asteasu, Berrobi eta Alegiako udaletxeetan mozio onartu dela. Beraz, jakin dezazuen proiektua Tolosaldeko ikuspegi hori poliki poliki ari dela hartzen, nahiz eta oraindik seguraski lanean jarraitu beharko dugun. Legealdi amaieran gaude, nik uste dut Tolosako Udalak legealdi ezberdinetan ito diferenteak markatu dituela berdintasun atalean eta baita ere berdintasun politika publikoak egiteko momentuan. Nire gustatuko litzaidake legealdia bukatu aurretik bai talde motorra eta bai emakumeen gune zabala piskat elkartzeko datorren legealdiko lanak modu zehatzago batean zehazteko. Azkeneko bileran lan baldintzen proposamen bat zehaztu zen, lan mardula dago egiteko. Udalari dagokionez, dagoeneko jada teknikariak espediente



bat zabaldu du, espediente horrek jaso beharko du memorian txostena, eremu fisikoaren deskripzioa, zerbitzuen deskripzio zehatza, proposatzen den kudeaketa mota, zerbitzuaren azterketa ekonomikoa, arautzeko proposamena eta arautze horretan baita ere, emakume taldeak orain arte egin dugu dinamizazio berdinean jarraitu ere zer esana eta zer hitz egina badaukagu oraindik. Kontuhartzailearen txostena, Idazkariarena eta bueno administrazio eskatzen dituen txosten guzti horiek. Hori dokumentu edo espediente hori luzea izango da lan mardula izango da, orduan nik baita ere eskerrak eman nahi dizkizuet emakume duin duzuen lan guztia eta nik bereziki Agurtzari eskerrak eman nahi dizkiot lan honen koordinazioan sartu dituen ordu guztiarekin eta hemendik aurrera tokatuko zaion lanarekin animatzeko.”

Jarrain prozesu partaidetzan parte hartu duen Asanbladako kide batek hitza hartu. Bere parte hartzea DVDan dago espedientea.

...

Alkatea: “Asmoa da bilera bat egitea eta pauta batzuk jartzea legealdia bukatzen da, jarraipena izango du, dena delakoak jarraitzen duena gobernu taldea edo oposizioan, agian komeni da etapa hau ondo ixteko finkatutako lan horiek piskat gehiago zehatzea.”

Alkateak mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

Emakumeen etxeak eta txokoak Mugimendu Feministaren erreibindikazio historiko izan dira eta dira. Eskaera hori 80ko hamarkadan hasi zen gauzatzen Estatuan, hain zuzen ere, Zaragozako eta Kataluniako ekipamenduak sortu zirenean. Euskal Herrian, berriz, 2003koak dira lehen ekimenak, emakumeen etxeak jarri zirenean Ermuan aurrena eta Arrasaten ondoren, eta 2004an ireki zuten Eibarren.

Las casas y txokos de las mujeres han sido y son reivindicación histórica del movimiento feminista, que comenzó a concretarse en la década de los 80, precisamente con la creación en el Estado de equipamientos en Zaragoza y Cataluña. En Euskal Herria, las primeras iniciativas son del año 2003, con la creación de las primeras casas de mujeres en Ermua y Arrasate y, posteriormente, en Eibar (2004).

2010etik aurrera etorriko ziren besteak: Gipuzkoan, Donostian, Hernanin eta Azpeitian; Bizkaian, Basaurin, Ondarroan eta Durangon; eta Nafarroan, Iruñean. Denek helburu bera dute, baina bakoitzak bere egiturak, kudeatzeko modua eta funtzionamendua ditu, udalerrri bakoitzaren errealitate eta beharretara egokituta. Aipatzekoak dira Donostiako eta Ondarroako etxeak, kudeatzen baitituzte Udalaren, erakunde feministen eta emakumeen ehun asoziatiboaren artean.

A partir del año 2010, se crean las siguientes casas: en Gipuzkoa, Donostia, Hernani y Azpeitia; en Bizkaia, Basauri, Ondarroa y Durango; y en Navarra, Pamplona. Todas tienen la misma finalidad pero difieren en el modo de funcionamiento, gestión y estructura, ya que cada una se adecua a su propia realidad. Merecen especial mención las casas de Donostia y Ondarroa, ya que están gestionadas entre el Ayuntamiento, la asociación feminista y el tejido asociativo de las mujeres.

Etxe hauek sortu zituzten politika

Esas casas fueron creadas a fin de



feministak bultzatzeko eta emakumeen erreferente izateko. Leku hauek elkartzeko, eztabaidatzeko, ikasteko eta ahalduntzeko dira, eta, era berean, abiapuntu dira emakumeek parte har dezaten udalerriko politikan eta bizitzan. Era askotako gaiak izaten dituzte aztergai eta herriko kolektibo feministen eta emakume-taldeen kezka eta jakin-mina jasotzen dira, besteak beste, teoria, literatura edo genealogia feminista, indarkeria matxista, autodefensa feminista, sexualitatea, abortatzeko eskubidea, emakumeen arteko ahizpatasuna; aholkularitza juridikoa eta psikologikoa ematen da; liburutegi espezializatuak antolatzen dira.

Aurrekariak

Tolosan, Emakumeen Etxearen aldarrikapena (lehendabiziko aldiz) Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren (2009-2011) ebaluazioan egin zen, eta 2012an, Tolosako emakumeek espazio propio baten eskaera egin zuten.

Ildo horretatik jarraituz, 2015ean, Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa eta III. Planean (2015-2020), berriro ere emakumeentzako espazio fisiko bat sortzeko beharra jasotzen da Jabetza eta Partaidetzaren 2. ardatzeko 2.1.1.4. eta 2.1.1.5. helburu espezifikotako neurrien artean.

2016an, Tolosako Plangintza Partekatuan (2017-2027), *Tolosatzen* programaren barruan, 1. ildo estrategikoan (Tolosa, pertsona ardatz duen herria), ordura arte aldarrikapen izan zena neurri zehatz bihurtu zen, 1.3.3. neurria, hain zuzen ere.

impulsar las políticas feministas y ser un referente de la mujer; se trata de lugares para reunirse, debatir, aprender y empoderar y, al mismo tiempo, son el punto de partida para que las mujeres participen en la vida política y social del municipio. Se recogen las preocupaciones y el deseo de conocimiento de los colectivos feministas y grupos de mujeres y son diversos los temas de debate, tales como teoría, literatura o genealogía feminista, violencia machista, autodefensa feminista, sexualidad, derecho al aborto y sororidad. Cuentan, asimismo, con asesoría jurídica y psicológica, además de bibliotecas especializadas.

Antecedentes

En Tolosa se plantea (por primera vez) la reivindicación de la Casa de las Mujeres en la evaluación del II Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Tolosa (2009-2011), y en el 2012 las mujeres de Tolosa solicitaron un espacio propio para las mujeres.

En ese sentido, en el 2015, en el Diagnóstico y III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Tolosa (2015-2020), se vuelve a recoger la necesidad de crear un espacio propio físico para las mujeres en las medidas definidas en los objetivos específicos 2.1.1.4. y 2.1.1.5. del eje 2 de Intervención denominado Empoderamiento y Participación.

En el 2016, en el Plan Compartido de Tolosa (2017-2027) del programa *Tolosatzen*, en la 1ª línea estratégica (Tolosa, un municipio centrado en la persona) se convierte en medida —en concreto en la medida 1.3.3.— la que hasta ese momento había sido una reivindicación.



Horrela, 2016an, ordezkari politikoak eta emakumeen taldeko ordezkariak Basauriko eta Donostiako etxeetara joan ziren, gune horietan emandako esperientziak aztertzeko eta proiektu honen abiapuntu bat izateko.

Urte horretan bertan, era berean, Emakumeen Etxearen lan-talde politiko-teknikoa sortu zen. Talde horretan biltzen dira Udal Gobernuak, oposizioko zinegotziak eta emakumeen ordezkariak. 2018an, Berastegiko eta Asteasuko alkateak talde honetan integratzen dira. Talde honen helburua da, besteak beste, elkarlanean proiektua kokatzea eta gutxieneko batzuk definitzea eta adostea. Horren haritik, hainbat gai tratatu dira: etxearen arazoak, definizioa, lan-ildoak, eskainiko diren zerbitzuak, antolamendua, kudeaketa eta abar.

Halaber, Berdintasun Departamentuaren 2018ko aurrekontuan, 20.500 €-ko dirukopurua aurreikusitako enpresa bat kontratatzeko, proiektu honen inguruan prozesu parte-hartzaile baten bidez hausnarketa bat egiteko herritarrekin, bereziki emakume-taldeekin.

2017ko udaberrian, zenbait feminista eta emakume-talde elkartu eta Tolosaldeko Emakumeen Etxearen eskaerari indarra eta forma ematea erabaki zuten. Horren inguruan hitz egiteko bilera ireki bat antolatu zen eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Eskualde osorako izango zen Emakumeen Etxe bat behar zela ondorioztatu zen, Tolosan kokatua, eta parte-hartze prozesu bat beharrezkoa zela emakumeek nolako etxea nahi zuten erabakitzeko. Eskatera horrekin 300 sinadura inguru bildu ziren.

Gainera, iaizko martxoaren 8ko greba

Posteriormente —seguimos en el 2016—, una representación política y representantes de grupos de mujeres visitaron las casas de mujeres de Basauri y Donostia, para analizar sus experiencias y tener así un punto de arranque para este proyecto.

En ese mismo año se crea el grupo de trabajo político-técnico, compuesto por el Grupo de Gobierno, concejales y concejales de la oposición y representantes de las mujeres, al que se incorporan las alcaldesas de Berastegi y Asteasu en el 2018. El objetivo de este grupo es, entre otros, situar el proyecto así como definir y consensuar unas bases mínimas. Para ello, se han tratado varios temas como los motivos que justifican la creación de la casa, su definición, las líneas de trabajo, los servicios que va a ofrecer, su organización, gestión, etc.

Asimismo, en los presupuestos del 2018, el Departamento de Igualdad cuenta con una cantidad de 20.500 euros para la contratación de una empresa que realice un proyecto en torno a un proceso participativo de reflexión con la ciudadanía, especialmente con los grupos de mujeres, sobre este tema.

En la primavera de 2017, algunas feministas y grupos de mujeres se reunieron para impulsar y dar forma a la Casa de la Mujer de Tolosaldea. A tal finalidad convocaron una reunión abierta que resultó todo un éxito. En dicha reunión concluyeron la necesidad de la existencia de una casa de la mujer para toda la comarca que estuviera situada en Tolosa así como la necesidad de un proceso participativo para decidir el tipo de casa. Se recogieron más de 300 firmas para dicha solicitud.

En el contexto de la huelga feminista del



feministaren testuinguruan, Tolosaldeko Asanblada Feminista sortu da. Bere erronka nagusia Emakumeen Etxea sortzea da, eta, horri begira, eskualdeko emakumeen eta eragileen arteko sareak eraikitzea, elkarlanean jarduteko baldintzak sortzea eta errealitate bihurtzeko plangintza edo bide-orria lantzea, eta, azkenik, herriko nahiz eskualdeko eragile eta herritarrak era honetako ekipamenduaren beharraz sentibilizatzeko komunikazio-kanpaina garatzea.

Beraz, 2018ko maiatzean, hasiera eman zitzaion parte-hartze prozesuari eta bi lan-talde gehiago sortu ziren: Talde Eragilea (Tolosaldeko Asanblada feministako ordezkariak, emakumeen taldekoak, emakume norbanakoak eta Tolosako Berdintasun teknikariak osatutakoa) eta Emakumeen Gune Zabala (interesa duten eskualdeko emakume orok). Prozesu parte-hartzailea Elhuyar Aholkularitzako teknikariekin garatu da.

Horrela, prozesu parte-hartzailea bi fasetan garatu zen: lehen fasean, maiatzean eta ekainean, etxearen printzipioak, helburua, nolakotasuna, erabilera eta jarduerak definitu ziren; eta bigarren fasean, irailtik abendura bitartean, etxearen kudeaketa-eredua, antolaketa, baliabideak eta abar definitu ziren. Prozesuan zehar, guztira, eskualdeko 104 emakume inguruk hartu dute parte.

Horiek horrela, Tolosako Udaleko udal taldeek Osoko Bilkura honetan erabakitzen dute ondorengo konpromisoak hartzea udal esparruan:

1.- Onartzea Talde Eragilean sortutako eta Emakumeen Gune Zabalean onartutako Emakumeen Etxearen egitasmoaren zehaztapenaren dokumentua.

8 de marzo del año pasado, se ha creado la Asamblea feminista de Tolosaldea, siendo su reto principal la creación de la Casa de la Mujer, construir la red de mujeres y agentes de la comarca, crear las condiciones para actuar conjuntamente, trabajar la hoja de ruta para que se haga realidad y por último, desarrollar una campaña de comunicación a fin de sensibilizar la ciudadanía y agentes tanto municipales como comarcales.

Así pues, en mayo de 2018, se dio inicio al proceso de participación y se crearon dos grupos de trabajo más: El grupo promotor (representantes de la asamblea feminista de Tolosaldea, representantes de los grupos de mujeres, mujeres y técnica de igualdad de Tolosa) y el Foro abierto de mujeres (mujeres interesadas de la comarca). El proceso participativo se ha llevado a cabo con la empresa Elhuyar.

El proceso participativo se desarrolló en dos fases: en la primera fase (mayo-junio) se definieron los principios, finalidad, características, uso y actividades de la casa, y en una segunda fase (septiembre-diciembre) se definieron el modelo de gestión, los recursos de la casa. En todo el proceso participaron alrededor de 104 mujeres de la comarca.

Los grupos municipales del ayuntamiento de Tolosa acuerdan la adopción de los siguientes compromisos:

1.- Aprobar el documento del proyecto de la Casa de la Mujer aprobado en foro abierto y creado por el grupo promotor.



2.- Babestea Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa, balizko aldaketa politikotik harago, eta prozesua nahiz emaitza alderdi politikoen interesen logikatik kanpo mantentzea.

3.- Sozializatzea eta ikusgarri egitea herrian Tolosaldeko Emakumeen Etxearen inguruan egin den prozesua nahiz emaitza bera (Udalaren web orriaren, sare sozialen edo udal aldizkariaren bidez zabaltzea).

4.- Baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak jartzea, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen jarduna garatu ahal izateko, berariazko aurrekontu-partida bat izendatuta eta hornituta.

2.- Apoyar el proyecto de la casa de las mujeres de Tolosaldea más allá de los cambios políticos posibles y mantener tanto su proceso como el resultado fuera de la lógica de intereses políticos.

3.- Socializar y visibilizar en el municipio tanto el proceso como el resultado de la Casa de la Mujer de Tolosaldea (divulgar en la web municipal, red social y revista municipal).

4.- Disponer de recursos económicos y humanos para poder desarrollar la actividad de la casa de la mujer de Tolosaldea con la provisión de una partida presupuestaria .

Tolosaldeko Emakumeen Etxearen
Lan-talde politiko-teknikoa

Grupo de trabajo político-técnico de la
Casa de la Mujer de Tolosaldea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** mozioa, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa onartzeko eta hura garatzeko konpromisoa hartzeko.

10.Mozioa, apustuatarako eta zorizko jokoetarako aretoak hezkuntza-zentroetatik, kultura zentroetatik eta haurrentzako eremuetatik gertu kokatzea mugatzeari buruzkoa.

10.Moción para limitar la ubicación de salas de apuestas y juegos de azar en las proximidades de centros educativos, centros culturales y ámbitos infantiles.

Parte-hartzeak:

... Alkatea azaldu du Osoko bilkuraren aurretik lanketa bat egin dela Podemos taldeak



TOLOSAKO
UDALA

aurkeztutako mozioa alderdi guztien artean adosteko. Adostu dugu, bai Alderdi Sozialista, Podemos, EHBildu eta Eusko Alderdi Jeltzaleak, Beraz, mozio alternatiboa irakurri da.

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Gero eta handiago den arazo larri baten aurrean gaude eta arazoari aurre egiteko mozio hau aurrerapauso bat dela uste dugu eta horregatik mozioarekin bat gatoz.”*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Mozioan oso ondo adierazita dago momentu honetan ludopatia arazo larria bihurtzen ari da. Gaur egun jokoetarako eta apustua egiteko dauden aukerak izugarri handitu dira. Internetek ekarri du hori neurri batean. Adin bat daukagunoz gogoratzen gara, bingoak eta kasinoak, jarri zituenean txanpon jaleak nolako arazo larriak egon ziren famili askotan. Orain gertatzen ari da arazo hau ematen dela, ez helduen artean bakarrik, baizik eta gazteen artean, online plataformaren bidez. Pertsonalki kasu bat edo beste ezagutzen dut. Gainera, ematen diren erraztasunak dagoen bonbardaketa publizitario non nahi dago, 300€ erregalatzeko dizkizugu, telebistan ikus daiteke iragarkia, baldin eta gure web gunean apustua egiten baduzu. Egia esan, Euskal Autonomi Erkidegoan orain dela lau bat urte onartu zela Menpekotasun Legea. Lege oso argia eta oso mugatzaile da hainbat aspektuetan alkoholaren kontsumoaren aspektutan baino gainera pasa zen gai hau. Ez ginen konturatu. Izan ere, hau Legebiltzarrean eztabaidatu zen eta inongo taldeak ez zion hori behar zuen jaramonik egin. Eta gero ikusi dugu honen ondorioz, bai telebista publiko edo irrati publikoan daukagula apustu etxeak kirol programak ikusten, hain zuzen, gazteak gehien ikusten duten telebistan. Kontsumo ohiturak aldatu egin dira. Gaur bertan itzulia ikusten ari nintzela, itzuliaren babeslea nagusiak kirol apustu etxe bat zen. Badakigu udal kompetentzia ez dela kasu gehienetan horri eragitea baino bai atentzio deitza eta bai horren gain ardura dutenei esate aizu mugitu eta ahalik azkarren mugitu arazo larri batean aurrean gaude. Baina badauzka Udalak ere eragiteko moduak, mozioa aipatzen den azkenengo puntuan prebentzio zerbitzu publikotik, hori indartuta, hori kontu gehiago hartuta. Baina Tolosaren kasuan hor daukagu Beotibar Frontoian, eta guk badakigu txapelketarako pilotariak zer ematen duen soinean eta zer zegoen frontoiko paretetan, apustu etxe baten publizitatea. Bueno, agian hortik hasi beharko genuke, seguruaski gure gaia ez da izango, baina uste dut Tolosako udalak ere gogoeta egin beharko lukeela Beotibar Frontoian daukagun publizitate horren baitan. Guk babestuko dugu jakina mozioa baina gogoetarako puntu hori utzi nahi genuen.*

... Alkatea: *“Guk ere erabat bat etorri ginen hasieran aurkeztu zen testuarekin, gehienbat adin txikikoak babesteko neurriak hartzeko horrekin. Lehen goizean komentatu dizuet baina Tolosako udalak badauka prebentzio teknikari bat. Gainera, aurten komentatu dugu urtero egiten delako adin txikikoak babesteko kanpainak eta kanpaina egiten den programa hori, nolabait tokatzen da orain berritza. Piskat zaharkituta gelditu zaigu, urtez- urte kanpaina berdintsua egiten delako. Oraingoan honetan berritu egingo eta orain, momentu honetan ondo datorkigu gai hau ere aurreikusteko kanpaina horretan. Beraz, guk ere babestu egingo dugu.”*

Alkateak mozio alternatiboa irakurri du. Mozioak honela dio:



TOLOSAKO
UDALA

Azken urteotan ikusi dugu apustuatarako aretoen kopuruak nabarmen gora egin duela, eta, horrekin batera, ludopatiarekin lotutako arazoak dituzten pertsonen kopuruak ere gora egin du Euskadin, 18 eta 25 urte bitarteko gazteen artean bereziki.

Osasun Ministerioko datuek adierazten dutenez, apustuak dira ludopatiakasuen bigarren arrazoi nagusia, makina txanponjaleen atzetik, eta 25 urtetik beherakoen artean adikzio mota horren indizea % 6tik % 25era igo da azken lau urteetan.

Euskadiren kasuan, "Euskadi eta drogak" izeneko inkesta prestatzen da aldiro, droga-kontsumoaren eta substantziarik gabeko bestelako adikzioen egoera zein den jakiteko, baina ez da jokoekiko adikzioa aztertzen. Adikzioen gaineko adituek eta elkarteek aldarrikatzen dutenez, ezinbestekoa da azterlan serio eta sakon bat egitea problematika horren inguruan, hain zuzen ere informaziorik ezak oztopatu egiten baitu Euskadiko ludopatiaren errealitatea kuantifikatzea.

Hala adikzioen gaineko adituek eta elkarteek nola 2017-2021 aldirako Euskadiko Adikzioen VII. Planean egindako analisiak aitortzen dutenez, problematika berrien artean arazo zehatz bati arreta eman behar zaio ludopatiaren kapituluan, jokabidezko adikzio gisa, batez ere Internet bidez apustuatan hasten diren gazteei dagokienez.

2017-2021 aldirako Euskadiko Adikzioen VII. Planean teknologia digitalen ondoriozko problematikak gora egitearen arriskua adierazten da, mendekotasuna eta jokabide konpulsiboak sortzen dituztelako. Era berean, jokoetan aritzeko aukera errazten duten kanal berrien arriskua oso larria da, baina horren inguruan dauden ekintzak oso urriak dira. Dena dela, adikzioen eskaintza murriztearekin lotutako ardatzak ia ez du neurririk jasotzen jokoaren eta teknologia digitalen aurka, betiere publizitatean eta joko eta teknologia digitalen eskaintzen sektoreak berak izan behar duen autokontrolaz eta erantzukizunaz haratago.

Online jokoen eskaintzan izan den zabalkundea gure herrietako kaleetara ere iritsi egin da, eta bereziki kalteberak diren tokietan joko-aretoak kokatu dira, baita institutu publikoetatik gertu ere, ikasleak jokoaren eraginpean jarriz eta adikzio-arazoak sor ditzakeen jarduera bat normalizatuz.

Herri administrazioek egoera horren gaineko ardura hartu behar dute. Horregatik, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu arlo horretan protagonista izan dadin. Udalek ere erantzukizun handia dute, bereziki kalteberak diren herritarrak babesteko neurriak sortzeari eta udalerriko biztanleen ongizatea bermatzeari dagokionez.

Hau guztia kontutan hartuta ondorengo adierazten dugu:

1. Tolosako Udalak, beste toki-erakundeekin elkarlanean, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailarekin batera lan egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko jokoaren araudi orokorrean (I) apustuatarako lokal berriak irekitzeko aukeraren gaineko baldintzak aztertzeko eta berrikusteko, bereziki, hezkuntza-zentroekiko distantziak



TOLOSAKO
UDALA

eta era guztietako kulturguneekiko distantziak ezartzeko. Lan horren ondorioz, udalak egokituko du bere ostalaritza jarduerak arautzen dituen ordenantza.

2. Tolosako udalak neurriak hartuko ditu haur eta gazteak hartzaile izan ditzaketen ikusentzunezko publizitate-dukien hedapena mugatzeko, adibidez, udalerrian gauzatzen diren kirol-ekitaldietan hain zuzen ere, haur eta gazte horiek gehiago babesteko.

3. Tolosako udalak udaltzaingoaren prestakuntza indartuko du: apustuekin eta jokoarekin lotutako arau-hausteren inguruan: bereziki adin txikikoei begira, legez ezgaitutako pertsoneri eta jokorako sarbidea legez murriztuta duten pertsoneri begira.

4. Tolosako udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskadiko ludopatiaren diagnostikoa aldizkako "Euskadi eta drogak" inkestan barne hartzea, edo berariaz, horretarako egin daitezkeen ikerketetan online plataformen eta horien irismenaren inguruko datuak landuz.

5. Tolosako Udalak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari sortu berria duen **Euskadiko Jokoaren Behatokia**-ren egitasmoarekin jarrai dezala. Behatokiaren eginkizun nagusietako bat Euskadin jokoaren errealitatea zein den ezagutzeko diagnosi zehatza egitea da, ezagutza eguneratuaren arabera politika publiko eraginkorrak gauzatzen joan ahal izateko. Bereziki aintzat hartuz joko zalekeriak adin txikikoengan izan dezakeen eragina eta horri aurre egiteko hartu beharreko neurriak.

6. Tolosako udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2017-2021 aldirako Euskadiko Adikzioen VII. Planaren ekintzak zabaltzeko, apustueta eta zorizko jokoetan sartzeko aukera kontrolatze aldera, arreta berezia jarriz online apustuen esparruan. Era berean, neurriak eskatzen dizkio apustuekin eta zorizko jokoekin lotutako adikzio-jokabideen aurka borrokatzeko, jokoak dituen ondorioei buruzko informazio-kanpainak eginez, material inprimatua eta idatzizko, irratizko, telebista bidezko eta Internet bidezko prentsa baliatuta.

7. Tolosako udalak ludopatiaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak egingo ditu arazo horren inguruan lanean ari diren tokiko erakundeekin batera.

8. Halaber, Tolosako Udalak bere gizarte zerbitzuak ludopatia arazoak izan ditzaketen pertsonen eskura jartzen jarraituko du, euren adikzioaren tratamendu egokia eskain dezaketen zerbitzu egokietara bideratzen laguntzeko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki



Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** apustueterako eta zorizko jokoetarako aretoak hezkuntza-zentroetatik, kultura zentroetatik eta haurrentzako eremuetatik gertu kokatzea mugatzeari buruzko mozioa.

11. Galderak eta eskaerak.

11. Ruegos y preguntas.

Parte-hartzeak:

- ... Kristina Pelaez Errazkin (EHBildu): *“Asteburuan izan dugun Merkatarien batzar orokorrean eduki genuen aukera hautagai entzuteko eta bertan azaldu zen galdera baten inguruan hitz egin nahi nuen, ez han bakarrik azaldu zelako galdera baizik eta lehenagotik ere kezka bat aipatuta zigutelako lehenago. Gaia, FICOBAn egiten diren outlet feria handi horien inguruan galdetzeko asmoa neukan. Kezka zen arduratuta zeudela jartzen den publizitatearen inguruan. Jartzen diren tokiak ikusgarriak direla, tamaina handikoak eta ez ote dien kalte egiteko tokiko merkataritxikiei. Hemendik proposamena landu dadin behar den batzordeetan edo lantzeko asmoa baduzuen gai hori lantzeko neurri aldetik, kokapen aldetik, nolabait mugatzeko asmoa duzuen eta baimena eskatu behar baldin badute horrelako publizitatea jartzeko baimen horiek arautu eta mugatzeko.”*
- ... Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV): *Gai honekin oso kezkatuta gaude, izan diren outlet guztiekin eta Tolosa&Corekin elkartzen garen guztietan kartel hau urtean bitan izaten da eta jartzen diren bezain pronto kendu egiten dira. Arazo hau herri guztietan dago, espediente bat ere ireki dugu udaletxe honetan. Izan zen outlet azkenengo Merkataritza federazioak idatzi bat bidali zigun udaletxe guztiei denen artean eta zinegotzi guztie zuzenduta, gehienbat Federazioaren bidez eman delako FICOBARI idatzia bat pasatzea gehienbat kezka horrekin. Enpresaren izena badago, udaletxeak espediente bat irekita dago. Gai hau hurrengo Merkataritza batzordean aipatu nahi nuen, izan ere, azkena izan zen oso luze, baina hau bi asteko gaia izan zen, horregatik beraien atera zuten igandean ospatu zen batzar horretan. Baina gaia bideratuta dago bai Merkataritza federaziotik, udaletxeko zinegotzi guztiei eskatu digute atxikitzea idatzi bati, gehienbat gai guzti horiek FICOBARI eskatzen gai horiek. Egia esan, Merkataritza Federaziotik jartzen duen enpresaren kontaktua jarri digute eta jada gure sailean espedientea irekita dago, argazkiak aterata daude, jartzen duten bakoitzean nola kentzen ditugun. Egia esan azkenengo honetan leku handitan pegatu dituzte, kolarekin, denbora dexente. Hori herri guztietan izanda, bai Tolosan, Zarautzen, Donostian eta horrelako guztietan. Izanda azken hilabeteko gaia eta horregatik atera zuten gaia batzarrean.”*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Gogoeta egin nahi nuen gure taldearen izenean, izan genuen berri baten inguruan, alegia, zegoen inbertsio funtsak Euskaltelen kapitalik handiena eskuratu izana. Ekartzen dut gai hona Euskaltelk sortu zuelako gure guztion inpuestoetatik ateratako dirutik, gure aurrezki eman*



TOLOSAKO
UDALA

zituztenetik mozkinetatik eta Euskaltel disfrutatu zuela zuntz optikoko sare bat gu guztiok ordaindutakoa eta poltsara atera behar zuenean jada muxutruk eman zitzaiona Euskalteli. Gainbera hasi zen Patxi Lopezen garaian, kutxa egiteko akziok Eusko Jaurlaritzak Euskaltelek zituen akzioak saldu zutenean. Jarraitu du, Kutxek edo Kutxabank-en momentu honetan Euskalteli buruz daraman politikarekin eta iruditzen zaigu arduragabekeria oso handia egungo Eusko Jaurlaritzak jakinaren gainean zegoena zertan, zer asmoetan ari zen, ba nolabait ezikusiarena egin edo urrats eraginkorrik eman ez izana eta orain aieneka ibiltzea esanez pentsatzen dugula egoitza soziala Euskal Herrian jarraituko duela. Arazo ez da egoitza soziala bakarrik, arazoa da Euskaltelentzat, Euskal Herrian lana egiten dutenen enpresa guzti horietan hori hemendik mugituko balitz etorkizunera eta ez dago arrazoirik pentsatzeko gertatuko denik eta hor daukagu Gamesa momentu honetan, hor dauden arazo guztiak, ezaguna direnak. Eta pentsatzen dugu gu guztiok pagatu dugun sare bat, gu guztiok sortzen lagundu dugun enpresa bat, nola arduradun politikoez utzi duten hirugarren batzuen esku eta hirugarren horiek izan ditzaketen ahalmena enpresa hori Euskal Herriatik atera eta gure ehun industrialari kalte handiak egiteko. Jada ikuspegi pertsonalekin ni nahiko frantximanta naiz, Frantzia asko gustatzen zait, iruditzen zait oso ondo egiten dituztela gauzak eta egiten dutena oso ondo da enpresa estrategikoak zaindu eta Frantziako gobernuak ez dauka bat ere enpatsorik Alstom-ek dirua sartzea baldin eta horrekin kompetentzia egiten badio CAF-i, Peugeot dirua sartzea. Frantziako elektrizitate sarea ez da pribatizatu, nazionala da, ea Euskal Herrian Frantziarra Pirinio ipar aldera gehiago begiratzen dugun. Uste dut momentu honetan ardura. duten Euskal Herrian operazio kamusten saiatzeko hutsi egin digutela, guztioi, herritar guztioi, eraikitzen lagun dugun herritar guztioi.”

Besterik gabe, 20:55ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA